

# “HAUSNARKETAK”

Imanol Zaldúa

---

---

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.  
Año 41. Tomo XXXVIII. N.º 1 (1993), p. 121 -157  
ISSN  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Pertsona bat benetan adimendua egiten duena gogoeta edo hausnarketa da. Hausnarketa ez da jakitea soilik, baizik eta jakiten dela jakitea. Erreflexiboa den izakiari beste mundu berri bat sortzen zaio: abstrakzio logikoak, kezka eta amets inmaterialak, barne-bizitzaren irakitea.

Hemen duzun idazlan honetan, egileak, hausnarketari esker, itxuren ispluari bira ematen saiatu da, atzekaldean zer dagoen ikusteko.

Gauzak eta pertsonak pasatzen dira, gogoetek, ordea, betirako irauten dute.

Lo que realmente hace a una persona inteligente es el pensamiento y la reflexión. La reflexión no es únicamente el saber, sino saber que se sabe. A la persona que es reflexiva se le abre un mundo nuevo: abstracciones lógicas, preocupaciones y sueños inmaterial... la ebullición de la vida interior.

En el presente trabajo el autor, gracias a la reflexión, intenta dar la vuelta al espejo de las apariencias para saber qué hay detrás.

Los objetos y las personas pasan, los pensamientos permanecen para siempre.

What any intelligent person really does is think and reflect. Reflection is not only knowledge, but knowing what is known. A new world opens to the reflective person: logical abstractions, preoccupations and immaterial dreams... the ebullience of interior life.

In this present work the author, thanks to reflection, tries to turn the mirror of appearances around in order to find out what lies behind it.

Objects and people pass on, thoughts stay forever.

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea.

- 1.- Maitasuna.
- 2.- Jakinbideak.
- 3.- Politika.
- 4.- Ekonomia.
- 5.- Kapitalismoa eta Marxismoa.
- 6.- Autodeterminazioa.
- 7.- Euskadi.
- 8.- Nafarroa.
- 9.- Hizkuntza.
- 10.- Goi-amas.

Gaua egunsentia egin zait. Ezin agortuzko iturri izkutu batetik bezala darit hausnarketa, barren bizitzaren jario iheskorra.

## HITZAURREA

Ikuspuntu experimentaletik begiztatua, hausnarketa edo erreflexioaren definizioa hauxe izango litzateke: Adimen batek bere baitara irauli edo makurtzeko daukan ahalmena, bere baita balioa duen izakitzat hartuz. Hausnarketa, gauzak ezagutzea ez ezik, gauza horiek norberarekin dituzten loturak ezagutzea da. Ez da jakitea soilik, baizik eta jakiten dela jakitea.

Bihurkor edo erreflexiboa den izakia, bereganako makurtze edo iraulpen horri esker, arlo berri batetan hazteko eta gehitzeko gai egiten da. Benetan, beste mundu berri bat sortzen zaio: abstrakzio logikoak, irautearen oharpenak, kezka eta amets inmaterialak,... hitz batez, barne-bizitzaren irakitea. Psikismoaren irakite hori kontzientzia deitzen da ere.

Izaki bat zinez adimendua egiten duena gogarte edo hausnarketa da.

Hausnarketaren ondorio berezi bat hizkuntza dugu, hots, gizakien hizkuntza sinbolikoa. Animalien hizkuntza deitzen den hori zeinu ozenak baizik ez dira eta.

Gure inguruan ikusten ditugun gauzak begiztatu ondoren, galdera batzuk ezartzen ditugu. Denek ikusten dituzte inguruko gertakizunak, eta batzuk hortxe geratzen dira. Benetako pentsalariek, ordea, hortik sortzen diren auziei buruz hausnartzeari ekiten diote.

Tximurik aurreratua den txinpanzeak bere garunean laumila milioi neurona ditu, giza-kiak, berriz, hamalau mila milioi. Neuronen kopuruaren hain alde haundiak eta neuronen arte-

ko atxiki, elkartasun eta loturen posibilitate askoz ugariagoek, gizakiaren garuna eginkizun guztiz berri batentzat, hots, kontzientziaren hausnarketarentzat gai izatea egiten dute.

Konparaketa baten bitartez, esan dezakegu, berotzen denean, ehun gradutara heltzean, urari egoera aldatzen zaion bezala, lurrun estatua hartuz, gizona ere pentsamendu zentzudunera heltzen denean, egoeraz aldatzen dela.

Normalean, fenomeno bat begizatzea ez zaio nahikoa gizonari, aurrerago jo behar du. Haurrak bezala, bere burua ispiluan ikusten duenean, bira ematen dio ispiluari, atzekaldean zer dagoen ikusteko.

Laín Entralgo-k zera idatzi zuen “El Ciervo'n” 1988.eko martxoan: “yo soy un hombre que no se contenta con penultimidades”.

Hemen duzun liburutxo honetan, inguruko gertaerak eta ideiak hauteman ondoren, aha-lerinak egiten ditut, hausnarketaren bitartez, ispiluari bira ematen, atzekaldean zer dagoen ikusteko. Luzaro ihardun dut neure barnean gogoetak iraultzen. Erreflexioaren bidez munduaren benetako jabeak izatera helduko garela espero dut. Gizartearen etorkizunean; kulturaren, etikaren, kontzientziaren garaipena lortuko dugu. Goi-mugaraino helduko da psikismoa, bere barruko irakite edo tentsioaren bilakaeraz, hausnarketaren poderioz alegia.

Kultura ez bait zaie gizonei kromosometan diren geneen bitartez igortzen. Etika eta kontzientzia ez dira odolez edo sortzez eskuratzen, baizik eta azaletik mamira sartzen gaituen, eta zinez adimenduak egiten gaituen, gogarteari esker.

Gure bizia, goizean sortu eta arratsean ihartzen den belarra bezala da. Gauzak eta pertsonak pasatzen dira. Gogoetek ordea, epe gabe irauten dute.

## 1.- MAITASUNA

Maitasunak ezinik ez dauka. Maitasunarentzat ez dago ezin eginik.

---

“Pentsatzen dut, beraz, existitzen naiz” zioen Descartes-ek. Nik, ordea, zera diot: maitatzen badut, benetako izatea daukat.

---

Zertarako daukat izatea? Neronen “ego” txikiaren nerekoikeria asetu eta atsegintzeko? Neure ziliborrari adi-adi begira egoteko? Maitasuna norberekeriaren aurkako sendagairik hobereena da.

---

Gizonengan izana izena baino garrantzitsuagoa da. Izanak egiten du gizona.

---

Odol jarioaren antzekoak diren barneko irrika biziei: maitasunari, askatasunari, zuzentasunari euts diezazkigun tinko; horietan zinezko bizitza bait datza.

---

Munduko ogasun guztiak gizonengana zuzen ditzagun, gizakia munduaren gune eta gailurra da eta.

---

Gizona izaki soziala bada, gizonaren aurrerabidea eta gizartearen aurrerabidea elkarrekin lotuta etorri behar dira. Beraz, erakunde sozial guztien iturburua, baita helburua ere, gizakumea izan behar da.

---

Gizartearen ordenua eta bilakaera pertsonaren onuraren menpean bitez.

---

Giza-iharduera gizonarengan sortzen eta gizonarengana abiatzen da.

---

Harribitxirik ederrena, irrikatuena eta garestiena den diamantea ikatz beltz eta itsusi bate-tik dator, lurpeko bero-galda kixkalgarriaren eraginez. Maitasunaren sugarak ere bihotzik bel-tzena aldatzen ditu.

---

Maitasuna txingarrak sutzeko hauspoa izan ohi da.

---

Maitasuna hitzetan baino egiteetan gehiago ipini behar da. Maitasuna ematean agertzen da, elkarr, batak besteari, daukana, ahal dezakeena eskuratuz.

---

Hiru segundutik hiru segundura haur bat gosez eta nekeziaz hiltzen da munduan. Beraz, hogeitaur minutu bakoitzean. Bitartean guk "saunak", gimnasioak, argaltze klinikak eraikitzen ditugu gure soberakinak kentzeko.

---

Odolez bustitako haziak, erene, sortu eta sendoki koskortzen dira.

---

Bazterretako goroldioetan ihintzak eguzkiaren lehen errainupetan dizdiratzen du.

---

Maitasunak ez du hesirik. Oztopo guztiak jo eta hausten ditu. Maitasunak liluraturik, erotasun eta erokeria ugari.

---

Amodioa osasungarria da gizaki eta herrientzat. Eta aitzitik, bere baitara begira bizi den berekoia galdua dago. Ura falta zaion landarearen antzera lehortu egingo da.

Atsekabeetan nabaritzen da pertsonen balioa. Gaua iluna izango ez balitz, ez lukete dizkiratuko izarrek.

Egun ilunetan agertzen ez bada ere, eguzkia goian dago.

---

Mundua gorrez beteta egon arren, gor ospetsu batek, Beethoven-ek alegia, bere 9. Synfonian Schiller-en "Milioika izaki nik laztantzen zaituztet. Mugagabeko besarkada mundu osoarentzat" erantzuten zion naturari. Naturak oihuka hitz egiten bait digu.

---

Norberekeria, beste grina txarrak bezala, hasieran mendera-erraza izan ohi da, baina gero...

---

Lagunurkoa nork bere burua bezala maitatzea eskaintza guztiak baino hobea da.

---

Pobreak ez omen du Zirineorik izaten. Agintarien eritziez oso bestelako ideiak dituzte-  
nek, ez dute aitabitxirik izango.

---

Ez da zoriontsua nahikeria egiten duena, zerbait egitean hura maite duena baizik.

---

Ongileen lana ereintza gisakoa omen da.

---

Gehiegizko garbitasuna antzadura da, eta antzuak ez du ezertxorik sortarazten. Horrela-  
xe, ere, nahi hutsak, funtsgabeko nahi platonikoak.

---

Zuzengabekeriaren edo injurtziaren zimaurrari ez omen zaio eragin behar. Zimaurrari hatsa  
dario eta. Horregatik, zimaurre geldirik, irabiatu gabe uzten dute zuhur txepel batzuek

---

Burutsuak ezkorrak izaten ornen dira, inozoak, berriz, baikor eta zuzengabekoak

---

Hiltzeak ez beste, guziek erremedioa badute. Gorroto biziak eta gaizkinahiitsuak, ordea,  
erremedio txit zaila.

---

Ilea zuritzea hobea da burua zuritzea baino. Zain eta hezurmuinak gogortzea hobea da  
bihotza gogortzea baino.

---

Zahartzen eta, batez ere, zakartzen garenean, ez da ispilua izaten errudun, gure aurpegi  
zimurra baizik.

---

Gure bizitzaren itsasuntzian, desamorioaren poderioz, txipristin kresalak brankatik txopa-  
raino maiz oldartzen gaituzte; baina oztopoak oztopo, itsasbarnetzeari ekingo diogu.

---

Ahal izateak baino nahi izateak gehiago egiten du. Nahi ez duten axolagabeak aingiraren  
buztana baino labanagoak dira.

---

Zuzen ihardutea komenigarria izan ohi da, ezer gezatu edo urardotu gabe.

---

Batzuk ez dira inola mugitzen, euliak txokoetatik irten ez daitezen eta beren patxada go-  
gaitu ez dezaten.

---

Nekez bildu eta aise gastatu: hona hemen berekoi eta etxekalteen bizimodua

---

Maitasunik ez bada ereiten, pakerik ez.

---

Hauxe da "boomerang" ondorioa: besteak erasotu eta arma, erasotzailearen aurka itzuli.

---

Gurasoentzat beti lumatugabeak gara eta beraien babesean bildu nahi gaituzte, oilalokak hegalpean txitoak bezala.

---

Nahiz eta ez ikusi ezer, begira ezazu, eta noizbait ikusiko duzu.

---

Benetako boterea boterearen ezarekin pozik egotean datza.

---

Amets egin etorkizunari begira. Horrek egiten gaitu gazte eta zoriontsu

---

Itsas-txirlak belarrietara eraman eta itsas-hotsa erraz entzungo duzu. Txirla horiek, berez, beti itsasoka dauzkazu. Txirlak bezala gure bihotzak ere zerbaiten hotsa, joera, egarria aldarrikatzen dizkigu.

---

Hemen, eta beste tokitan ere, gizon asko, baina norberaren buruari uko egiteko eta besteiei laguntza eskeintzeko momentuan, prakadun gutxi.

---

Mila hazi hil behar dira lore bat joritzeko.

---

Ur arrea geldirik uzten baduzu, gardenduko da.

---

Gizadiaren % 20ak munduko ogasunen % 80a pilatzen du, egundoko berekoikeriaz. Zoritarrez, % 20 horietako asko kristauak ornen dira, hots, Jesukristo pobrearen jarraitzaileak. Zinez lotsagarria.

---

Estatu Batuetako beltzen abesti batek zera dio:

Herriak pakean bizi,  
jaiki egin nahi du,  
loturik daukan katea  
hautsi, apurtu.

---

Urrun nahi duenak heldu, ez du zaldia lehertu behar. Lasaitasuna, pakea, adiskidetasuna... urrutiraino heltzeko baldintzak.

---

Zaharrari adin-legez, eta behartsuari maitasun-legez, itzala zor diozu.

Kontuz jende guzia hankapean hartzeko eta auziak ukabilka garbitzeko ohitura dutenekin.

---

Lurrean ez dago bedeinkapen haundiagorik, ezta atsegin liluragarriagorik, maitasuna baino.

---

Ikusten duzu bartza beste kokotean, eta ez duzu ikusten zorria zure kopetan.

---

Behar ditu urte piloak lagun onak eta ardoak.

---

Haserretzen dena, adikidetzen lana.

---

Bekaiztien eta jeloskorren esaera: Auzoko behiak errape luzea; edota: Auzoko salda beti hobea.

---

Mintzatzeak zilarra balio du zenbait aldiz; ixiltzeak maizago urrea balio du.

---

Lagunurkoa begi-ninia bezain maite izan

---

Egoista berekoiek beti lapikoa beren gogora egosi nahi dute, eta besteren alorrean atxurra sartu.

---

Altzairuak zenbat eta gehiago kolpatu, hainbat eta jauzi edo salto biziagoa egiten du.

---

Ez egin beste inori zuretzat nahi ez duzunik.

---

Zuek neurtzen duzuen neurritz neurtuak izango zarete

---

Pakea ez da bakarrik gudarik eza, edo etsaien arteko indarren oreka, ezta hilerriaren ixiltasun eta gelditasuna. Pakea egiaren, maitasunaren, zuzentasunaren eta askatasunaren emaitza da.

---

Pakea eraikitzeko, gizonen eta herrien arteko eztabaiden zergatiak sustraigabetu behar dira. Batez ere, injustiziak deuseztatu.

---

Erraza da aholku onak ematea, adinak exenplu txarrak ematea eragozten duenean.

---

Jendeak ez du kupidarik izaten. Besteren akatsak ikusteko ez da betaurreko beharrik.

---

Ogia egunekoa, urdaia urtekoa, laguna urtetakoa.

## 2.- JAKINBIDEAK

Geziak bere tirobide parabolikoa egiten du ortzian zehar, baina gezilariak bakarrik daki norakoa.

Aintzineko jakintsuek zera zioten: “mens sana in corpore sano”, adierazi nahian adimen eta gorputzaren arteko elkar-lotura gure bizitzaren antolamenduaren oinarria dela.

---

Egiaraino heltzeko badira zenbait bide, adibidez, zientifikoa, filosofikoa, estetikoa... Ba-koitzak bere esparrua nahiko ongi mugarrituta dauka.

---



Zientziak esango digu nola dardaritzen diren bibolinaren musika-hariak, baina ez digu esango Mozart-en doinua Beethoven-ena baino ederragoa denik, hori estetikari bait dagokio.

Zientziak argituko dizkigu lehergailu atomikoaren xehetasun guztiak, baina ez digu adieraziko ea lehergailu horren egitea etikoki ona ala txarra den, gai hori filosofikoa bait da.

---

Ez da nahikoa nola sortu zen izadi edo natura jakitea. Egokia eta pilpilgarria ere izango litzateke zergatik sortu zen jakitea.

---

Animaliak badaki, ez dugu ukatzen; baina dakienik benetan ez daki. Bestela, bere asma-kizun eta aurrerapenak aspaldian ugaritu eta nabarituko ziren.

---

Egia baldin bada garuna tresna elektronikorik bikainerarekin konpara daitekeela, eta ordenadorerik egokituenaz hornituriko tramankuluarekin, eragile bat ipin diezaigula premiazkoa da.

---

Filosofiaren aurka gehien oihukatzen duten izadiaren ikertzaileak, hain zuzen ere, filosofiarik okerreren azken zabarkerien mirabeak izaten dira.

---

Dogmatikoi jokatzeari ez da bakarrik Galileoren garaiko akatsa, ezta alderdi batetakoa bakarrik. Gure XX, mende argitsu honetan, Lyssenko sobietar biologoak, genetika marxismoari egokierazi nahian, burduntzalia sartu zuen. Mendel-en lege ospetsuak baztertuz, beste genetika berezi bat asmatu zuen. Eta Sobietar Batasunean bitxikeria edo kasketaldi hori ofizialtzat onartua izan zen luzaroan.

---

Begidunak izan arren, ez dakusate.

---

Estetikan eta konkretuki literaturan dogmakeria ere gerta daiteke. Idazlan bat neurri estetikoaz aztertu beharrean bestelako ikuspuntu alderdikari batzuetatik begiratzen bada, errealitatea itxuraldatu egiten da.

---

Kritikalariengan subjektibitateak, aurrejarreraren eraginez, dena kutsatzen du. Baina, zorronez, azken finean, irakurleek epaituko dituzte, bai idazlanaren balioak, baita kritikarieren jokabideak ere. "Geroak esan beza", zioen gure Orixek.

---

Ez dago goiz edo berant jakiten ez den sekreturik.

---

Beltz guztiak ez dira ikatzak, ezta zuri guztiak irinak.

---

Zerbait ez dakigula jakitea ornen da jakinduriaren hasiera eta iturburua

---

Ez ditugu behar egunero eta etengabe egia metafisiko ukaezinak, "bi gehi hiru berdin bost" bezalakoak. Ziurtasun morala, hots, pertsona fidagarrien hitzetan oinarritzen den ziurta-

suna, nahikoa izaten dugu ia gauza guztietan lasai iharduteko. Adibidez: nik uste dut horrelako emakume bat neure ama dela senideak esan didatelako. Nik gelako sabaia ez zaidala buru gainean eroriko uste dut, etxegileaz fidatzen naizelako.

---

Etikak gizajokaeraren zuzentasuna adierazten digu, arrazoiaren eritzien arabera. Arrazoiak, teologiara jo behar gabe, berez txarrak eta onak diren egintzak nabaritzen bait ditu, aginduak edo debekatuak ez egon arren.

---

Gizonengan lege naturala izango ez balitz, pertsonen, taldeen, estatuen nahikeria, atsegina, onura ezarriko lirateke lege. Hortik, mota guztietako faszismoak erraz sortzen dira.

---

Pentsa norengandik datozkizun bai laudioak baita oldarketak ere. Batzuegandik datozkizun gorespenak kezagarriak izan ohi dira. Eta, alderantziz, batzuen erasoak, pizkortzaileak.

---

Egiari aurrez-aurre begiratzeko ausardia behar dugu.

### 3.- POLITIKA

Askatasunaren irudi erraldoiak eta konstituzio txit demokratikoak eduki arren, mundu askatuaren eredu izan behar liratekeen Estatu batzuek, komeni zaienean, diktadura odolkoiak babesteari ekiten diote.

---

Komunismoaren beldurra maiz erabili ohi da estruktura eta egoera zapaltzaileen beharrezko aldaketak galerazteko. Beldur hori mamu izugarria izaten da milioika pertsona gizapeko egoeran mantentzeko. Esklabutzatik irtetea eta komunismoaren menpean erortzea gauza berbera izango balitz bezala.

---

Mendez-mende zenbat aldiz gizonek gaur egun ahuntzaren gauerdiko eztula diruditen helburuen alde beren buruak eskeini dituzten, borroka odolkoietan bizia galduz! Baina euskaldunen borroka gure Herriaren nortasuna, are gehiago, gure Herriaren izatea galbidetik sabaltzeko da. "To be or not to be, that is the question".

---

Pentsamendu hauek gure tunel ilunaren azken muturrean somatzen den argia izan daitezke.

---

Politikari batzuk olagarroak bezalakoak izaten dira. Edonon sartzen dituzte beren erroak. Hau bai agintearen joera!

---

Zertarako hainbeste aginte-postu! Eraitza gabeko nagusitza! Agintea auziak garbitzeko omen da, eta tirria biziz gainera.

---

Botere politikoaren funtsezko arduradun eta eukitzailea, lege naturalaren arabera, biztanleen herkidego edo komunitate osoa da. Hau ez da gaungungo asmakizun hutsa, ezta gaur

gaueko ihintza. Duela hiru mende baino lehen ideia hau Belarmino, Francisco Suárez, Soto, Vitoria, Mariana, Molina eta beste filosofo eta teologo bikainek defendatu zuten.

---

Martin de Azpilkueta nafar jakintsuak, 1528.ean, Karlos enperadorearen aurrean, thesis izukaitz hau azaldu eta arrazoi baliotsuez frogatu zuen: “Erresuma ez da erregearena, baizik eta herriaren elkartearena, eta erret jabetza bera, jatorrizko eskubideaz herriarena da eta ez erregearena: eta horregatik, herkidegoak ezin du jabetza hori zeharo bestegyanatu”.

---

Estatolatriaren adibide bat: Charles Pasqua Frantziako ministrariak zera aldarrikatu du: “Giza-pertsonaren eskubideak Estatuaren onuraren aurrean deuseztatzen dira”.

---

Estatu Batuetan “watergate” izeneko afera azkeneraino aztertu zen, eta beraren eraginez Nixon lehendakaria pikutara bota. Hemen, berriz, zer gertatzen ari da hemengo azpijokoen ikerketekin? Bitartean, nonnahi eta noiznahi “etika” hitza ahoan darabilte. Eta Espainiaren al-daketa etikoa ornen da beraien helburu nagusia.

---

Egunetik egunera eraginkorragoa den gizadiaren elkartasunak, Herri guztiak beraien etor-kizunaren egileak izaten lagundu beharko ditu.

---

“Dena Herriarentzat, baina Herririk gabe” zen “despotismo ilustrado” izeneko dotrinaren goiburu edo lema. Baina historiaren ereduaren arabera, Herriak ez badu bere buruaren alde borrokatzen, inork ez dizkio bere eskubideak dohan emango. Eta are gutxiago “despotek”.

---

Talde etniko bat osotzeko bi baldintza behar dira. Bata objetiboa, hots, gizatalde kultural bat. Bestea subjektiboa: bere nortasunaren eta bere berezitasunaren barne-ezaguera edo kontzientzia. Beste taldeez nortasun desberdina alegia.

---

Talde etniko batek Herria izateko bere lurraldea eduki behar du.

---

Eta Herria Nazio bilakatzen da bere eskubideen eta berezitasunaren kontzientzia bizia lor-zen duenean. Beraz, eskubideen barne-ezaguera biziak bereizten ditu Nazioa eta Herria.

---

Politika arloan guda-tegiaren eta sakristiaren pentsamoldeen nahasketa sasi-ezkontzarik txarrena izan ohi da.

---

Euskal Herriko Elizak politika abertzalea egiten duela sarritan entzun eta irakurtzen dugu. Askoz argiagoa da, ordea, historian zehar, Espainiako Elizaren nazional-katolizismoaren poli-tika. Adibidez: 1085. urtean Armentiako elizbarrutia Calahorrara aldatu zuten arrazoi politikoak zirela medio. Eta Iruñeatik Logroñora Inkisizioaren epaitegia eramán ere. Felipe II.ak iritsi zuen Gipuzkoa eta Nafarroako herri batzuk Baionako elizbarrutikoak ez izatea.

---

Gasteizko laugarren gotzaina izan zen Cadena y Eleta jaunak bataioetan izan euskadu-nak ipintzea debekatu zuen, eta Angel Zabalaren “Historia de Vizcaya” liburua argitaratzea

galerazi. Eta zerasanik ez dago Añoveros gotzainaren aurkako eraso basatiaz. Eta 1936.eko Guratzada Santuaren gertakizunak?

---

Aita Larramendik 1757.ean (kontutan har Rousseau-ren “Contrat social” 1762.ean argitaratu zela), zera idatzi zuen: “Erregearen ahalmen eta nagusigoa bere babespean ipini diren herriengandik eta herkidegoarengandik datoz”. “Erregeen jabego hau, eta jendearen menpekotasuna gizaelkartearen kontratuaren antzeko zerbaitetan dauka iturburua”. “Ongi aginduei aurka egitea, jainkozko antolamenduari uko egitea da; baina inola ere ez, gaizki aginduei aurka egitea”.

---

“Goimailako nagusiengan boterea baldintzatua dago, hots, agintaritza dute, bai, baina herkidegoak eman zien modu eta baldintzapean. Aipagabeko paktu edo hitzarmen bat printzearen eta herkidegoaren artean gertatzen dela esan genezake” (Francisco Suárez). “De legibus” III, 9).

---

“La vida es sueño” liburuan Calderón de la Barca-k ongi dio: “En lo que no es justa la ley no ha de obedecer al Rey”.

---

Campomanes ministrariak, ordea, hauxe zioen: “Herriak tiranoaren aurka egin dezakeelaren aburua, sakrilegoa, asaldaria, liluratzaila eta fedeaulea da”.

---

Nagusigoaren gaian, edo hitzarmena edo indarkeria, ez dago beste biderik.

---

Pakearen aurkako arrisku handiak sortzen dira, bai Estatu bakoitzean, baita Estatuaren artean ere, talde nazionalen eskubideak zapaltzen badira.

---

Hamar mila korapilok ez dute zalantza bat osatzen.

---

Zerbaiten jabea bazara, ez zaitez izan ezeren menpeko.

---

Zerbait demokrataren eritziz, pertsonen balioa kuantitatiboa bakarrik da.

---

Legezkoa dena, baliteke batzutan etikoa ez izatea.

---

Alderdi politiko batzuk demokratikak dira agintean ez daudenean, eta diktatorialak agintzen dutenean. Begirunea dizkiote eskubideei boterea ez dutenean, baina jasangaitzak dira gobernuan.

---

Izenez demokrazia herrikoiak dira, baina paradisu horiek burdinezko hesiz inguratzen dira, jendeak ihes egin ez dezan.

---

Diru publikoa deitzen dena bizlanle guztiek, zergen bitartez, emandako dirua da. Beraz, ez da zilegia diru hori egitamu alderdikari baten alde erabiltzea.

---

Epai-botereak Gobernuaren egintzetan eskua sartzea, hona hemen Eskubide-Estatuaren zutaberik garrantzitsuenetakoa. Demokraziaren benetako euskarria.

---

Estatu batek torturak eta ekintza kriminalak deuseztatzen ahaleginak ez badiu egiten, ez du eskubiderik bestelako bortizkeriak gaitzesteko.

---

Gehiengoaren legeak ez du etikoki zuzentzen hitzarmen baten aldaketa eta herri txikien eskubideen murrizketa.

---

Badago jatorrizko lege bat edonoizkoa, guztientzat balioa duena. Hau ukatzean, erlatibotasun moralak premiazkoa dugun faroa itzaltzen digu, helmugaren erreferentzia kentzen. Nola baliatuko ziren portura heltzeko gure arrantzaleak Matxitxakoko, Igeldoko, Hondarribiako, Miaritzeko argidorreak itzaliko balira?

---

Esate baterako, juduak milioika sarraskitzea, edozein kulturetan, edonolako ohitura eta garaitan, izugarrizko krimena da.

---

Nori berea, euskaldunen legea.

---

Gaur egun Letonian bizlanleen %53ak bakarrik dira letoniarrek, eta Estonian %60ak estoniarrek. Ipar-Irlanda jatorriz irlandar ez den jendez beteta dago. Hona hemen beste genizidio mota bat: herri bat etorkinez itotzea.

#### 4.- EKONOMIA

Etekin nazionalaren izenean, teknikoki posible den guztia nahigarria gertatzen da, are gehiago, beharrezkoa. Adibidez; lehergailu atomikoak, drogak, kutsagarriak, trukaketa genetikoak,... Hau bai produktibitatearen sasi-erlijioa!

---

Dotrina honetan gure gaurko bide ekonomiko eta politikoak finkatzen dira. Ongiaren funtsa, gogo edo zalekeria haundienak edukitzea da. Eta edonola eta etengabe gura horiek asezteko ahaleginak egitea.

---

Haziera itsua, gizatiar norabide eta helbururik gabe. Kontutan hartu gabe ea onura edo kalte soziala sortuko den.

---

Norberekeriak armak egitera eta gudak antolatzerara bultzatzen gaitu.

---

Diruen diruz ateak eta ahoak aise zabaltzen dira.

---

Mundu aldrebes honetan dirua dugu jaun eta jabea.

---

Behargabekoa eta alferrikakoa erosten dituenak, aurki beharrezkoa dena ere saldu beharko du.

---

Sindikatuak, beren buruari uko eginez, soldaten neurritasun eskasa, langileen ahalmen ekonomikoaren murrizketa, industriaren birmoldaketa langabeziaren gehikuntzarekin onartzen zituztenean, orduan, bai gobernuaren partetik, baita aberatsen aldetik ere, goraipamenak hartzen zituzten.

---

Gaur egun, ordea, egoera ekonomikoak hobera jo du. Eta entpresariak eta, batez ere, bankuak etekin mardulak eskuratzen ari direnean, irabazi horiek denen artean banatu beharko lirakeke, dagokion heinean, lehen krisiaren ondorioak banatu ziren bezala.

---

Dena, agintariek uste zuten baino gehiago, garestitu bada, soldatak ere hein berean aragotu beharko dira, batez ere jubilatuen zorigaiztoko soldata zekenak.

---

Lana gizakien berezitasuna da. Animaliek bizitza mantentzeko egiten duten ekintza, ezin liteke lana deitu. Gizonak tresnak asmatu eta atontzen ditu. Animalia batzuek erabili, tresnak erabiltzen dituzte, ez, ordea, asmatu eta egin.

---

Lanaren bitartez, gizonak izadia aldatu eta gizatasuna osotzen du, hots, neurri handi batez gizonago egiten da.

---

Lana, diruketa edo kapitala baino garrantzitsuagoa da. Lana da eragile nagusia; diruketa, berriz, langailua edo tresna baizik ez da.

---

Eta makinaren edo lantresnen jabetasunari buruz, zer? Tramankulu horiek ezin dira lanaren aurka ukan. Edukitzeko, bidezko arrazoi bakarra lanerako zerbitzua da. Lanaren bitartez, munduko ondasun guztien jomuga orokorra bete dadin, hots, denek ogasun horiez baliatzea.

---

Giza-lanaren helburua ez da bakarrik ekonomia. Gizonak, gauzen eraldakuntzaren bitartez, bere nortasuna bermatu eta indartu behar du. Honela gizona kreaizaile nolabait bilakatzeko da.

---

Helburua ez da bakarrik gehiago edukitzea, baizik eta gehiago izatea, bere nortasuna orokorki osotzea.

---

Erabat ezegokia eta zitala izango litzateke, eta gizonen duintasunaren aurkakoa, lanerako, guztiz funtzionalak diren langileak bakarrik aukeratzea. Hori eginez, diskriminazio itsusian

eroriko ginatete eta, indartsuak eta sendoak ahul eta gaixoen aurka bereiziz. Lanak gizon guztien duintasunaren menpeko izan behar du, eta ez soilik abantail ekonomikoaren morroia.

---

Ezin eginak ez du legerik, ezta pekatu ere. Hala ere, batzuek bizi osoan ez dute iltzerik mailukatzen.

---

Jende asko goldea edo mailua pluman trukatzeko asmoz dabil. Eskulanak ez ornen dira duinak eta.

---

Gobernuak bi beso ditu: bata luzea, biltzeko; bestea laburra, emateko.

---

Gaur egun diruaren arabera neurtzen dira pertsonak.

---

Askoren bihotzak ustelak joak daude, diru goseak herdoilduta. Aitzitik, gutxiren gose direnak gutxi asetzen ditu.

## 5.- KAPITALISMOA ETA MARXISMOA

Kapitalismoaren lege nagusia irabazi materiala da beste edozein lege moralaren gainetik. Beste muturrean, berriz, komunismoa dugu, akats zikinez kutsatua: diktadura, teknoburukrazia, harresi lotsagarriak, nazionalitateen zapalketa, herriaren eta partiduaren arteko banaketa...

---

Hona hemen liberalismoaren oinarri kapitalista: Norberak bere onura partikularrari jarraitzen badio, denen onura orokorra lortuko da. Hauxe idazten zuen behintzat 1850. urtean Baionako Frederik Bastiak ekonomilariak.

---

Kapitalismoa ezgizakorra eta materialista da hezurmuinetaraino, dirua pertsonen gainetik pintzen bait du. Bere aurreneko helburua etekina da.

---

Sobiet Batasuna edozein Estatu kapitalista bezain inperialista da. Moskuk bere sateliteak ditu, eta haiei sozialismoaren eredu inposatzen die. Eta haietako norbaitek eredu horretatik alde egin nahi izango balu, Hungariak eta Txekoeslobakiak nozitu zituzten zapalketak jasan beharko litzuzke. Polonian, %5ak diren komunistak beste guztien jaun eta jabe dira\*.

---

Kapitalismoa eta komunismoa gizadiaren aurkako krimen izugarrien errudunak dira. Baina beraien arteko bereizpenak hauexek dira: Kapitalismoak gizona modu burutsuago eta sotilagoan oinperatzen du. Oinperatzea, ordea, sistema beraren izateatik ernetzen da. Errusiako eta Txinako Komunismoek egin dituzten ankerkeria basatiak, berriz, benetako sozialismoaren aurkako krimenak direla esan genezake.

---

---

\* Gaur egun aldatu da.

Marxismoak nabaritzen badu erlijioaren balio iraultzailea, erlijioaren kontrako jarrera bertan behera utziko duela uste duenak, oker dabil. Egundoko uste okerra! Marxismoarentzat erlijioa droga da. Baliteke batzutan droga pizgarri eta iraultzailea, baina beti izango da droga. Eta beraien eritziz, ezaguera zientifikoaren aurkakoa.

---

Herrialde aberatsek beren ogasunaren %1 a ematen dute herri txiroak laguntzeko. Bestalde, ordea, ezkerreko eskuaz eskubiaz emandakoa baino askoz gehiago kentzen diete.

---

Kapitalismoak, zuhurki jokatzuz, ez du behin ere esan materialista denik, baina bere sus-traiak materialista hutsak dira. Lurralde kapitalistetan ere txakurrak oinutsik.

---

Kapitalismoak antikomunismoaz baliatzen da gizonazpiko egoera okerre atxikitzeko. Komunismoari aurre emateko aitzakiaz, eskuindar diktadorekin sarritan elkartzen da. Adibidez, amerikarrak bat etorri ohi dira Franco, Salazar, Somoza, Pinochet-ekin.

---

Azken mundu-guda garaian Britainia Haundiko Royal Air Force-ri buruz zera aldarrikatu zen: "Hain gutxik ez dute inoiz hainbeste egin, hainbat pertsonentzat". Kapitalismoari buruz, berriz, hauxe esan genezake: "Hainbeste pertsonak ez dute inoiz hain gogor lan egin, hain gutxirentzat".

---

Colombiako kilo bat kafe erosteko guk ordaintzen duguna, Colombiako nekazariei ordaintzen dieten baino hamar aldiz gehiago da.

---

Hirugarren munduan zenbait familiak goian zerua eta behean lurra besterik ez dute

---

Komunismoa herrialde batez jabetzen denean, erlijioa "berez" desagertuko dela dio marxiten iragarkizun edo profezia ezagun batek. Marxista aginteak luzaro iraun ondoren, % 90 poloniarrek, ordea, kristau fedeari eusten diote.

---

Marx oso profeta eskasa izan zen. Bere aurrikuspenak berehala burutuko zirela iragarri bait zuen.

---

Ekialdekoek mendebaldeko bizimodu askatua ikus ez dezaten Berlingo eta beste hainbat lurraldetako harresiak eraiki ziren. Esanak esan, marxismoa opiorik dogmatikoena eta itsuena maiz izan ohi da.

---

Egoera ekonomikoa ez dela herrien bizitzaren bilakaeraren iturburu bakarra, historiak irakasten digu. Beste zergatiak ere badira: abertzaletasuna, askatasunaren irrika, eta abar.

---

Mao-Tse-Tung-en eritziz, inperialismoaren aurkako gatazka nazionala, hots, nazioaren askatasunaren aldeko borroka, lehenengoa eta garrantzitsuena da. Eta kasu horretan, barneko klaseen arteko beste kontraesan guztiak bigarren lekuan geratzen dira.

---



Lenin-entzat, ordea, eskakizun demokratiko guztiak (autodeterminazioa barne) sozialismoaren helburuen menpean ipini behar dira, eta horregatik: “Europako nazio handi eta oso handi batzuen axolek nazio txikien mugimenduen gainetik egon behar dute”.

---

Eta kasu batzutan Lenin askatasun aldeko guda kolonialekin eta iraultza antiimperialistekin ados agertzen bada, ez da herrien eskubideak defendatzeagatik, guda hauek kapitalismoa erasotzen dutelako baizik.

---

Lenin-ek zioen: “Langileriak ez luke auzi nazionala fetitxe bat egin beharko”. Eta: “Marxismoa nazionalismoarekin elkartezina da”. Eta langileriari oroitarazten dio: “Nazionalismoaren aurka borrokatzeko betebeharra, batez ere, errusiar nazionalismoaren kontra”.

---

“Langileak ez du aberrikirik” esatean, Marx-ek psikologia ez zekiela erakutsi zuen.

---

Gaur egun, marxismoa pipiak jota agertzen zaigu.

---

Marx-en eritziz, gizona altxatzea Jainkoari uko egitea da. Jainkoaren bitzita gizonaren heriotza izango litzateke. Gizona Jainkoaren eskuetan egongo balitz, ez litzateke bere buruaren jabe izango.

---

Gizona erabat libre baldin balitz, ez litzateke Jainkoa existituko. Honetan arrazoa du Marx-ek. Baina nola frogatzen du gizonaren askatasun mugagabe hori? Non aurkitu du Marx-ek gizon zeharo aske edo jainkotxo hori? Ateismoa ez da zientzia, postulatu frogaezina baizik. Sinesmen bat da.

---

Fededunak bere sinesmenari fedea deitzen dio. Marxistak, berriz, bere sinesmenari zientzia deitzen dio. Izena eta izana ez datoz bat. Zientziaren itxurazpian, hutsa. “Intxaurrak urrundik hamabost, bertara eta bost”.

---

Marx-ek zerua kendu, baina beste zeru utopiko bat asmatu zuen.

---

Erljioaren kritika marxista nolabait eta alde batetik funtsezkoa da. 1.- Erljioa batzutan munduko arazoetatik ihes egiteko, edo munduaren hobekuntzari uko egiteko aitzakia izan delako. 2.- Erljioak maiz “status quo” edo maila sozialak mantendu dituelako, zuzengabekeriak legeztu eta zurituz. Batzuek asko edukitzea eta besteek gutxi, Jainkoaren borondatea bezala aurkeztu ohi du. 3.- Historian zehar Eliza eta gobernu txarrak uztartuta agertzen dira. Eta injustiziaren aurkako iraultzak maiz gaitzetsi ditu. 4.- Maitasun huts eta abstraktua erabili du batzutan, eta ez premiazkoa den maitasun eraginkor, ahalegintsua.

---

Baina sakonki aztertuta, erljioaren kritika marxista gezurrezkoa da. 1.- Ez bait ditu bereizten zer den berez erljioa eta erljioaren praktika. Ez du Jainkoaren gaia arakutzen, erljioaren iharduera historikoa baizik. 2.- Gainera, erljioaren iharduera ez da beti txarra izan, sarritan

mesedegarria baizik. 3.- Nondik ateratzen du marxismoak gizonaren askatasun mugagabea? Nondik Jainkoak gizona zapaltzen duela?

---

Marx-ek ez zuen leialki jokatu bere teoriaren kontrako emaitzekin. 1869.eko irailaren 25 ean, eta 1874.eko uztailaren 15ean Engels-i bialdutako gutunetan, hitz zakar eta bortitzez, Renaniako apaizen ardura (Ketteler gotzainak bultzatuta) arazo sozialetan, deitoratu zuen. Apaizen pobreenganako ekintza gaitzetsi zuen.

---

Marx jauna: eritziak balio dute erabiltzen direnean.

---

Engels-ek jakin nahi zuen nola sortu zen Jainkoaren ideia pertsonengan. Ez du planteiatzen, ordea, ea Jainkoa existitzen den ala ez. Baina mataza hariltzeko, hari-muturretik hasi behar da. Horrek behia baino lehenago uztarria ekarri nahi du.

---

Aldaketa ekonomikoekin batera alienazio guztiak desagertuko direla, funtsgabeko uste bat baizik ez da. Gizonen zorigaitzen zergatia ez bait datza bakarrik ekonomian, gizonaren baitan dago, bere sakonean. Egoismo edo berekoikeriatik sortzen dira batez ere. Puntu honetan Marx-en antropologia ez da zientifikoa. Gizonen salbamena ekonomia hutsetik etorriko dela, ez al da beste alienazioa? Marx-ek fede bat ezarri zuen beste fedearen orde.

---

Gizonen anaitasunaren zentzua kristau erlijioak sortarazi zuen.

---

Lore bat ernetzeko lorepotean zimaurrea behar da. Marxismoarentzat giza-zimaurrea usteltzea beharrezkoa da gizon bikain batzuk sortertzeko. Baina zertarako balio dute hainbeste gaixotasunek, heriotzek, minek? Zertarako elbarrituek, lepradunek, minbizidunek, zeharrek, atzeratuek? Ez al da gehiegizko zimaurrea? Kristaudentzat, zimaurrea berbera lore bilakatzen da.

---

Marxismoa, gizakiaren motibapenik eta sustrairik sakonena ez dituelako ezagutzen, garaituta dago.

---

Jean Paul Sartre-k gure garaia "Marxista Aroa" deituko zela aldarrikatzen zuen. Batez ere XX. mendearen bigarren erdialdian "zibilizazio marxista" gailenduko zela. Igarkizun hau, ordea, faltsua suertatu da. Gaur egun marxismoaren erabateko eklipsea ikusten ari gara. Oso denbora gutxian gauzak sano aldatu dira.

---

Marxismoak bete du bere betebeharrak historikoa, hots, hasierako kapitalismoaren bidegabekeriak eta injustiziak salatu zituen, langile oinperatuak defendatu, kristauengan lotan zeukaten Ebangelioaren zuzentasun sozialaren zentzua esnatu zuen. Zoritxarrez, helburu hauek betetzeko, izugarritzko zapalkuntzak, tiraniak, hilketak, sarraskiak burutu ditu. Historian zehar inoiz egin direnak baino askoz ikaragarriagoak? Baliteke.

---

Esakera on guztiak esanda daude, orain lanean ipini behar dira.

---

Bai kapitalismoari, bai marxismoari buruz, 113. salmoaren hura esan genezake:

“Haien jainko-iduriak zilar eta urre,  
gizonen esku-lan dituzte.  
Ahoa bai, eta hitzik ez dute,  
begiak bai, eta ez ikusten.  
Belarriak bai, eta ez dute entzunik,  
sudurrak bai, eta ez usmorik.  
Eskuak bai, eta ukiturik ez,  
oinak bai, baina ez dijoaz abian,  
mintzorik ez dute eztarrian.  
Horien antzeko izan bitez horien egileak,  
horiengan uste on dutenak”.

## 6.- AUTODETERMINAZIOA

Espainiaren batasun sakratua! Arlo honetan zerbait sakratua izatekotan, Herrien autode-terminazio eskubidea, noski.

---

Kolonien eta bestelako Herrien artean edonolako bereziketarik ezartzeko autodetermina-zioaren eskubideari dagokienez, ezin daiteke legezko oinarririk aurki.

---

ONU-k solemneki aldarrikatzen du: “herri guztiak autodeterminazio eskubidea dute”. Nor- baitek eskubide honek kolonientzat bakarrik balio duela uste badu, koloniak bakarrik herriak direla suposatzen du. Eta orduan, beste talde etniko nazional guztiak zer dira?

---

Herri txikiak ezinezkoa dela independentzia, batzutan esaten digute. Baina Europa soilik kontutan hartuz, eta mikroestatuak (Andorra, San Marino, Monaco, ...) alde baera utziz, hor ditugu Luxemburgo, Malta eta Islandia. Luxemburgok Bizkaiaren zabalgunea du, eta Bilbok baino biztanle gutxiago. Malta azkoz txikiagoa da eta 380.000 biztanle ditu. Islandia, berriz, nahiko zabala da, baina 240.000 biztanle, hots, Arabaren biztanleen kopurua edo.

---

Ez dago benetako demokrazia Estatu multinazional batetan, barneko herri bakoitza bere sistema politikoa aukeratzeko libre ez bada. Eskubide hau Giza-Eskubideen Hitzarmenaren le- hengo atalean argi eta garbi finkatuta agertzen da.

---

Bere lurraldearen mugaketa herri bakoitzaren eskuetan egon behar du, eta ez besteen menpean. Bestela, inguruko botere nagusiek murriz lezakete herri txikien zabalera. Edota ge- hiegi zabaldu, lurralde zabal horretan herri desberdinak nahasteko, Italiak Hegoaldeko Tirola- ren kasuan egin duen bezala.

---

Hona hemen autodeterminazioaren adibide batzuk: 1905. urtean Norvegia Suediatik al- dendu zen, Estatu aske berri bat eraikiz. Islandia, 1941.ean, Danimarkatik banandu zen, eta 1944.ean errepublika aske bilakatu zen.

---

Munduan gaur diren ia Estatu guztiak zatiketa edo banaketatik sortu dira.

---

Autodeterminazio eskubidea giza-eskubidea (eskubide-humanoa) da. Giza-eskubideek be-rezitasun hau daukate: balioa edukitzeko ez dute bestelako lege-positiboaren, ezta inolako erakunde politikoaren baieztapenik behar. Gizonen jatorrizko eskubideak dira.

---

Pertsonaren askatasuna funtsezko giza-eskubidea baldin bada, herrien autodetermina-zioa pertsonen askatasunaren adierazpen guzietikoa baizik ez da. Beraz, giza-eskubidea ere.

---

Pertsonak banaka begiztatuta izatez aske baldin badira, zergatik ez dira berez ere libre izango herri izeneko taldeetan elkartuta daudenean?

---

Herri guztien arteko legezko berdintasuna nabari eta ukaezina baldin bada, zuzengabe-koa da herri bat beste herri baten oinpean egotea bere borondatearen aurka. Pertsona bat bestearen menpean derrigorrez egotea zuzengabekoa den bezala.

---

Zeharo gaitzesgarria den menekotasuna berdin gertatzen da herria kolonia deitzen de-nean eta bestela deitzen denean (departamendua, probintzia, erregioa, ...). Eta hauxe suerta-tzen da herri bati autodeterminazio eskubidea ukatzen zaionean. Autodeterminazioa herri baten nortasunaren iraupenaren bermagarririk bikainena da.

---

Bi esaldi hauek: "Gizon guztiak berdinak dira", eta "Gizon guztiak ezberdinak dira", ez dira kontraesanezkoak.

---

Talde etnikoek premiazkoak dituzten eskubideak, batez ere kulturalak dira. Baina ez dira benetazkoak izango, eskubide politiko eta ekonomikoetan ez badira oinarritzen. Horregatik, derrigorrezkoa da botere politikoak herriaren agintepean egotea.

---

Batzutan Estatu Federala ez da nahikoa ere barneko herrien arteko berdintasuna lortze-ko. Canadian, esate baterako, ez da berdintasun osoa iritsi anglosaxoniarrak eta frantziar herrien artean.

---

Estatu multinazionalen politikari eta legegile gehienentzat, babestu behar diren barneko herrien arteko berdintasunaren balio etikoak, politikoak, sozialak, ez dute garrantzi handirik.

---

Isrraeldarrek, hilda zegoen beren hizkuntza berpiztu egin dute. Gu, berriz, gure euskara galtzearen arriskuan gaude. Zergatik ezberdintasun hau? Neurri handi batetan behintzat, haiek burujabetasun politiko osoa dutelako, eta guk ez. Haiek ahalmena dute etorkin guztiei hebraiera jakinerazteko, aske edo independenteak direlako.

---

Euskadik zabaleran 20.000 km ditu, eta ia 3 milioi biztanle. Ertamerikan 13 Estaturik biz-tanle gutxiago dute, haien artean Costa Rica, Panamá, Jamaica. Eta 10 Estaturik zalabera txi-

kiagoa, adibidez, Jamaica, Bahamas,... Ozeaniako ia Estatu guztiak Euskadi baino koskorra-  
goak dira, bai biztanleei, baita zalalerari dagokionez.

---

Sarritan, bizlanleen gehiengoak onartutako Konstituzio bat, Estatuan diren herri txikien-  
tzat ez da egokia, bai, ordea, Estatuko herri nagusi pribilegiatuarentzat.

---

Balioen zerrendan, herri bakoitzaren bizitza eta nortasunaren iraupena, "Estatuaren bata-  
sun sukratua" delako horren gainetik egon behar du.

---

Nazioaskotako Estatu batetan, arazoak ezin dira kopuruaren legeaz garbitu. Txikiak ba-  
besik gabe geratuko lirateke eta.

---

Canadian, frantses jatorrizko herriaren egoerak pentsaerazten digu, nazio askotako Esta-  
tu baten barruan nazional minoritateak beren izatean jarraitzea ia ezinezkoa dela.

---

Hemen behin betirako erabaki behar dena, hauxe da: ez, behintzat, zer agintzen duen  
expresuki eta zuzenean Konstituzioak autodeterminazioaz, baizik eta ea autodeterminazioa  
giza-eskubidea den ala ez, batez ere, Espainiak sinatu dituen Nazioarteko Hitzarmenen arabera.

---

Gainera, espainiar Konstituzioak, art. 10., 2. atalean, zera dio: "Oinarrizko eskubideei eta  
Konstituzioak onesten dituen askatasunei dagozkien aginduak, Giza-Eskubideen Agiriaren eta  
Espainiak sinatu dituen Nazioarteko Hitzarmenen arabera ulertuko dira". Espainiak sinatu di-  
tuen Hitzarmenen artean, ONU-k 1946.ean egindakoa dago. Eta hortxe, lehenengo artikuluan  
autodeterminazio eskubidea baieztatzen da zuzenean eta orokorki.

---

"Herrien burujabetasuna dela eta, ezin da ziurtatu, gaur egun gudak ez duela betebeh-  
rrik. Besteen oinpean herri zapalduak dauden bitartean, baliteke guda premiazkoa izatea es-  
kubide nazional bortxatua baieztatzeko". (Georgio del Vecchio. "El Derecho Internacional y  
el problema de la paz". 85).

---

Zuzenbidearen ikuspuntutik, Estatu baten lurraldearen integritatearen legeak, beste Es-  
tatu baten erasoen aurka bakarrik dauka balioa.

---

ONU-ren Biltzar Nagusiak Bangla Desh Estatu berria ontzat hartu du. Eta Bangla Desh  
independentziara iritsi zen Pakistanen lurraldearen osotasun edo integritatea hautsiz. Onartu  
zuen ere Algeriaren burujabetasuna, Frantziako departamentua (ez kolonia) izan arren. Eta  
Portugaleko probintzia zen Mozambique-ren independentzia ere. Kasu hauetan, lurraldearen  
osotasunaren legea ez da oztipoa izan herri hauen burujabetza eragozteko.

---

Ia ez da izango munduan Estaturik azken berrehun urte hauetan mugen aldaketak jasan  
behar izan ez duenik. Beraz, integritatearen printzipio hori ez dator bat historiarekin.

---

Lurraldearen osotasun horrek beste lege garrantzitsuagoa dauka kontra, osotasun kulturalaren legea, alegia. Lege hura artifiziala da, beste hau, berriz, berezko eta jatorrizkoa. Herri baten nortasun kulturala herriaren izatearekin lotuta bait dago.

---

Nazioarteko pakea nazio bakoitzaren eskubideen onespenean eta begirunetik eskegita dago.

---

1947.etik orainarte ez dago porrot egin duen Estaturik biztanle gutxi edukitzeagatik, txikia edo pobrea izateagatik. Gaur egun munduan 30 bat Estatu Euskadik baino biztanle gutxiago dute.

---

“Herri guztien eskubideak, eta batez ere autodeterminazio eta burujabetza egokiro onartu eta errespetatutak ez diren bitartean, ez da izango benetako bake iraunkorrik”. (Paulo VI. ak diplomatikoei 1973.eko abenduaren 21ean).

---

1978. urtean Pedro Calvo Hernando kazetariak Fernando Abril Martorell eta Federico Ysart politikariei esan zien, ondorio txarreko akatsa burutzen ari zirela Espainiako Konstituzioan, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea eskubide historikoen artean ez onartzean. Gaur egun, kazetariak arrazoa zeukala esan genezake. Orain, euskaldunei, gure eskakizun guztiak bakesuki eta legez defendatu ahal ditugula esaten digutenean, gezurretan dabilta.

---

Bizkaiko kazetari batek Calvo Hernando oker zebilela uste du, “autodeterminazio eskubidea mendebaldean anakronismo hutsa da eta”. Baina lehen aipatu dudanez, Norvegia 1905. urtean Suediatik aldendu zen, Islandia Dinamarkatik 1941. eta 1944.ean, eta abar.

---

Nazio bat nazioa da, bertakoek nazioa direla esan eta sinesten badute.

---

Gure herriaren oihua, gure luraren garrasia hauxe da: Izan, izan, izan nahi dugu! Bizi izan nahi dugu! Gure nahi izana egia bihurtu behar da.

---

“Nazioen lasaitasuna ez da inoiz ziurtatua egongo, Europako edozein tokitan herri bat zapalduta bizi den bitartean” (Bakunin). Horregatik, Bakunin-ek indarrez eraikitako inperioen zatiketaren alde dei bat egin zuen, eta beraien ordean, Europako herrien federakuntzaren egitaraua defendatu zuen: “Behera, kongresuen jauntxokeriaz eta indarrez ezarritako jatorriz-beste mugak. Nazioen artean ez lirateke egon behar jatorrizko mugak baizik, herrien borondateaz beraien nortasun nazionalen arabera ezarriak”.

---

“Nazionalitate eskubidea, nire aburuz, askatasunaren printzipioaren berezko ondorioa da” (Bakunin)

---

Bakunin-entzat, autodeterminazio eskubidea erabateko oinarri mugagabea da, edonon eta edonoiz balio duena. Baina Marx eta Engels-entzat, demokrazia burgesaren printzipioek ez dute balio absoluturik.

---

Beste herria lotzen duen herria, bera lotuko duten kateek prestatzen ari da (K. Marx.).

---

"Funtsezko gauza hauek sinesten ditugu: lehenengoz, herri guztiak zein aginpidetan bizi nahi duten aukeratzeko eskubidea dutela" (Wilson, Estatu Batuetako lehendakaria, 1916.ean)

---

"Egoera hauei bereziki dagokie XIX. mendetik hasita gailendu eta zabaltzen ari den joera, hots, talde etniko eta nazionalen autonomi osoa egokitzea, nazio askatu eta independententia eratzu". (Juan XXIII. "Pacem en Terris", 93).

## 7.- EUSKADI

Euskal Herrialdeak nahirik eta baldintzapean Gaztelako erregeen menpean ipini zirela kontuan hartuz, Madrigo agintariak baldintza horiek ez badituzte betetzen, beste sinatzaileak (euskaldunak) hitzarmenetik aske geratzen direla argi dago.

---

Gaztelako erregeekin egindako elkartzea itundua izan zen. Beraz, gure baldintzak ziren Foruak edozein Konstituzio baino lehenagokoak eta balio haundiagokoak dira.

---

"Zazpiak-Bat"en alde ahalegintzen garenean, utopikotzat eta ameslaritzat jotzen gaituzte. Baina, esate baterako, Polonia ere mendeetan zehar zatitua egon zen Errusia, Austria eta Prusiaren artean. Hala ere, 1918. urtean utopia errealtate bilakatu zen, poloniar aberri batua sortu zenean.

---

Duela 30 urte ikasten zen Afrikako geografiak ez du zerikusirik gaurkoarekin, hainbat Estatu berri eratu ondoren.

---

1837.ean, Hernanin, Esparterok zera aldarrikatu zuen: "Galtzearen beldur zareten Foru horiek, begirunez gorde eta errespetatuko zaizkizue... Zuen Foruak zainduak eta tinko eutsiak izango dira, eta inork aurka ekiten badio, nire ezpata izango da zorrotik aterako den lehena haiek babesteko". Baina esanak eta izanak ez ziren bat etorri, 1839.ean Foruek egundoko eraso jasan bait zuten.

---

Westminster-ko nazioarteko hitzarmena 1467.ean sinatu zen Bizkaia eta Ingalaterraren artean. Eta 1482.ean beste antzeko bat Gipuzkoa eta Ingalaterraren artean. Beraz, normalizat emanenez gero Katolikoek eta beste erregeek ere Bizkaiari "nazio berezia" deitza.

---

Gaztelan errege berri bat izendatzen zenean, Bizkaiko Jauntzat onartua izateko, urtebeteko epean, Foruak zin egin behar zituen lau aldiz, Bizkaiko lau tokitan.

---

Bizkaitarrek, Foruak zaintzen ez zituen erregeari, Bizkaiko jabegoa ken ziezaioketen. Eta hain zuzen ere, horixe egin zioten Gaztelako Endrike laugarrenari.

---

Foruen ezeztapenarekin, alde batek alde biko edo bilateral hitzarmena hautsi zuen.

---

Gipuzkoako Foruak, 7. ataleko 2. zatian, zera zioen: “Erregeak ez du inolako mailegurik eskatuko, ezta zergak eta sariak leporatuko ere”.

---

Isabel erregina 1483.ean Gasteizera etorri zenean, probintziako eta hiriko agintariak bera agurtzera irten ziren Arriaga atetik kanpora. Eta gero, atek itxi zituzten erreginak Foruak zin egin arte. Gero bai, atea zabaldu zioten hirira sar zedin.

---

Federiko Chopin musikariaren garaian, Polonia bere aberria zatitua zegoen zuzengabe-ko mugaz. Zati bat Austriaren menpean, bestea Prusiaren, eta hirugarrena Errusiaren uztarpean. Inork ez du esango, ordea, Federiko Chopin austriarra, prusiarra edo errusiarra denik. Chopin poloniar hutsa zen, gu euskaldun huts gary bezala.

---

Judeako basamortuan, Itsas Hilaren ondoan, Massada Israelgo harkaitz sakratua dago. Goiko zelaianean, 960 israeldarrek beren aberriaren azken lurra defendatu zuten hiru urte luzez hamar mila soldadu erromatarren aurka. Azkenean, erromatarrek goraino iristea lortu zutenean, bi emakume eta bost ume bakarrik bizirik zirauten. “Massada ez da berriro eroriko” esaten dute guarko israeldarrek. Guk ere baditugu geure Massadak.

---

Obanos-ko nafar zaldunen goiburua hauxe zen: “Pro libertate patria, gens libera state”, hots, “Aberriaren askatasunaren alde, jende askatua zutik”.

---

Herria zapaldua dago, baina ez etsia.

---

Gu iraintzeko asmoz, “separatista” deitzen digute. Euskaldunok, ordea, Europaren batasuna lehia bizirik irrikatzen dugu, baina ez Madrilen bitartez, eta are gutxiago Madrilen oinpean. Batasuna nahi dugu, batez ere, iparraldeko anaia euskaldunokin elkartzeko, Bidasoako “contra naturam” muga deseginez.

---

Espainiar burutasunaren poderioz erabaki bat inposatzen digutenean, eta Euskal Herriak erabaki hori ez badu onartzen, ez da interbiderik izango.

---

Jon-Adams-ek Euskal Herriaren demokrazia aztertu zuen Estatu Batuetako Konstituzioa prestatzeko. Bere oharretan hauxe idatzi zuen: “Euskaldunek Europako demokraziarik zaharrena eta iraunkorrena zeukaten”.

---

Euskaldunok gure aberria maite dugulako, eta gure nortasuna babesteko, eta jatorrizko eskubideak gureganatzeko borrokatzen dugulako, espainiar batzuek, betiko leloez, “Txiki, abarkadun, zakar, arlote, borono, ezjakintsu, apaizen gonapeko” eta beste horrelako irainak botatzen dizkigute. Baina euskaldunok, zenbat eta abertzaleagoak, hainbat eta unibertsalagoak gara, mundu osoan zehar ezaguna da.

---



Iparraldeko abertzaleak gutxi dira. Baina Sabino Aranak, hasi zenean, botuen %3a bakarrik lortzen zuen.

---

Loiolako Santutegian, lehenengo solairuko iraganbidean, jesuiten Aita General guztien kuadrak kronologikoki sailkatuak daude. Lehenengo kuadruan, Inazio Deunaren irudiaren azpian, zera ipintzen du: "S. Ignatius de Loyola, cantaber", hots, "Loiolako Inazio Deuna, euskalduna". Bere ondoan, bigarren Generalaren kuadrua, hitz hauez: "R. P. Jacobus Láinez, hispanus", hots, "Jacobus Láinez Aita Agurgarria, espainiarra".

---

Zestoa eta Aizarna arteko bidezidorraren ertzean, hildako baten oroigarrian, hauxe irakurri nuen:

"Nekez usten du gezalak itxasoa  
Ez hare-harriak basamortua  
Ez du liliak udaberria uzten  
Ez elurrak zuritasuna.  
Bere sorterria nekez uzten du  
Sustraiak han dituenak".

---

Adrián Celaya, "Derecho Foral y Autonómico vasco" izeneko bi liburuen egileak, hauxe dio: "Gobernamendu konstituzionala beti izan da gobernamendu foralaren etsairik haundiena. Bi pentsamolde ezberdinak dira". Bere ustez, Foruak ez daude babestuak Konstituzioan.

---

Larramendiren aburuz: "Gipuzkoak eman zien erregeei bertan agintzeko nagusigoa... baina baldintzapean eman zien". "Erregea legezkoa da Gipuzkoan, bere eskubideak zaintzen badi-tu. Bestela, ez da legezko erregea".

---

"Ziur al zaudete Probintzi hauek (Euskal Herrikoak) eta besteak ere, ez direla beren aintzineko Foruen alde altxatuko? Nire eritziz, sua lotan dago errautsen azpian" (Pi y Margall. "Las nacionalidades", 3. arg. 348-49).

---

Joan den mendean, batez ere 1839 eta 1876.ean, Foruak kendu zizkiguten eta, esanak esan, oraindik ez dizkigute bihurtu. Ez dizkigute bihurtu, besteak beste, Foru baimena (Pase Foral), zergarik eza, soldakuskaren gabetasuna, gure legeak konstituzioarrekoak izatea,...

---

Espainiar Konstituzioaren lehenengo eranskin edo ohar gehigarrian, Foruen gaurkotzea Konstituzio berberaren pean geratzen da. Baina gure eskubide historikoak Konstituzio aurrekoak dira. Eta inork ezin dizkigu eskubide horiek ez aldatu, ezta ikutu ere.

---

Euskal Herrian, 1978.eko Konstituzioari, %34,5 biztanlek eman zioten baietza. Beste bi herenek ez zuten onartu (edo kontrako botua emanaz, edo boturik eman gabe).

---

Biologiak ere ezberdinak gara. Munduko herrien artean Euskadi da Rh- portzentalarik haundienetakoa daukana. Eta zenbat eta ekialderago joan, hainbat eta Rh- gutxiago agertzen da. Japonian, adibidez, ia ez ornen da azaltzen Rh- aipagarri hori.

---

"Araba libre izanez... beti Probintzia Erresumatik askatutzat hartua izan da... beti izan bait da libre eta salbu, eta era berean nire Bizkaiko Jaurerria eta nire Gipuzkoako Probintzia". (Felipe IV.ak 1644.ean)

---

“Zer arrazoi dago, berriro diot, nazio pribilegiatu eta sorrera nobleenetako hau aparteko nazioa ez izateko; berezko nazioa eta besteetatik independentea ez izateko? Zergatik Espainiako hiru probintziak (eta ez dut Nafarroako erresumaz hitz egiten) Gaztelaren menpe egon behar dute: Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, alegia; eta beste hiruak Frantziaren menpe: Lapurdi, Zuberoa eta Baxe-nafarroa? Elkar bultza eta eska diezaiogun batzuei eta besteei, eta Piriñoietakoa Probintzi batuak deituko gara”. (Larramendik, 1757,ean).

---

Hona hemen Korregidor Jaunak Batzar nagusietan daukan betebeharra: “Batzarrak erabili eta erabakitzen dituen gauzak entzutera etorri den lekuko batena da, eta ez dagokio inolako eskubiderik, ez Batzarraren gainerik, ezta hango ordezkarri inoren gain”. (1807.eko uztailaren 9an Hernanin egindako Batzar Nagusiak).

---

Estatu modernoaren ahalmenak... ezin du, berak bakarrik, zuzenbide internazionalerako arazo txit garrantzitsu bat (Foruak) erabaki; legebiltzarrak erregearekin batera ez duelako hainbesterako bidezko aginterik”. (Liborio de Ramery. “El liberalismo y los fueros bascongados”).

---

“Euskal Herriak eskatzen dituen eskubideak, Estatu espainiarra sortu baino aurrekoak dira... Eta ez Erregeak orduan, ezta Errepublikako Gobernuak orain, ezin dituzte legebiltzarrekin bakarrik, gure Batzar Nagusiak gabe, Herri baten eskubideei buruzko legeak eman; eskubide horiek bere kondairako lege zaharretik ernetzen bait dira”. (Marcelino Oreja Eloseggi, 1931.eko uztailaren 12an).

---

“Aberats nahiz pobre, Herri bakoitzak badu arbasoengandik oinordetutako zibilizazioa..., erru astuna izango litzateke zibilizazio hori erahiltzea... Kristoren irakatsi honek Herrientzat ere balio du: Zertarako zaio gizonari mundu guztia irabaztea, bere anima galtzen badu?” (Paulo VI.ak. “Populorum progressio”, 40)

---

Euskadiren burujabetasunaren aldeko ekintzak gure bilakaera ekonomikoa eragozten duela aldarrikatzea, txantaia itsusia baizik ez da. Ardi-larruz jantzitako otso multzurren txantaia.

## 8.- NAFARROA

“Gernikako arbolan beren kabiak egiten dituzte hegaztiak, Jainkoak lagun, itzuliko ahal dira beti lau probintzi hauek!” (Diario de Navarra, 1905-I-3). Oraingo Diario de Navarra begiztatuz, esan genezake: “Quantum mutatus ab illo!”.

---

Baliteke “Gernikako arbola” nafarrek gehien kantatu duten aberri-eresekia izatea, sortu zen 1853. urtetik aurrera. Gayarrek Madrilgo Teatro Realen abestu zuen. Eta Nafarroako Aldundi Foralak Iparragirrerri zahar diru edo jubilazio emaitza ordaindu zion.

---

Gernikako zuhaitza beti izan da askatasun foralaren ezaugarria, ez bakarrik hiru probintzietan, baizik eta Euskal Herriko zazpi lurraldeetan.

---

Pedro de Nabarra buruzagiak, abertzale izateagatik Gaztelan preso zegoela, zera esan zion Carlos V. enperadoreari: “Jauna, ni ez naiz espainiarra, ezta Gaztela erresumako mempekoa, eta zaldun naizenez gero, leialki gordeko dut nire errege D. Juan eta D.<sup>a</sup> Katalinari egindako zina, eta ez diot uko egingo nire aberriari”.

---

“Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako Erresuma beraien artean elkartuta daude. Horregatik batzuek, herrialde hauei Espainiako Probintzi batuak deitzen diete”. (José Cadalso. “Cartas Marruecas, 26). José Cadalso Cadizen 1741.ean jaio, eta Gibraltarren 1782.ean hil zen.

---

Nafarroako Aldundiak Epaitegi Konstituzionalaren aurka agertu zen 1984.eko otsailean. Epaitegi horrek uste bait zuen Nafarroaren burujabetasuna Konstituziotik datorrela. Aldundiak, berriz, zera zioen: “Gure Erresuma zaharraren burujabetasuna jatorrizkoa da, ez du Konstituzioan bere iturburua, testu hori baino askoz lehenagokoa da eta”.

---

Frantzisko Alava, PSOE-ko nafar ospetsuak, Diario de Navarra egunkarian, 1977.eko urriaren 17an, hauxe esan zuen: “Nafarroaren Euskal Herriarekin lotura konfederala defendatzen dugu”. “Guretako gehienek (sozialistek) Nafarroa Euskadin sartzea nahi dugu, Nafarroa Euskal Herriko zati bat delako. Horixe beti esan dugu”.

---

Eta “Zuk zeure burua euskalduntzat daukazu? galdetu ziotenean, hauxe ihardetsi zuen: “Bai, noski, lau abizen euskaldunekin, zer izango naiz bada? Hau nabaria da”.

---

Gure abeslaririk hoberena izan zen Julián Gayarre, bere abertzaletasuna adierazteko zeukan modurik bikainena, Iparragirreraren ereserkia edonon kantatzea zen. Madrilen eta Bartzelonan, denboraldi bakoitzaren bukaeran, ereserkiaren bertsoak, ahozkatze onez abesten zituen. Eta behin, Erroman bere kantaldiak bukatu zituenean, hotelera musika-kritikalariak gonbidatu, eta “Gernikako arbola” kantatu zien, esanahia azaldu ondoren.

---

“Batez ere geuk, sozialistok, borrokatu behar dugu lotzeko, ez nortasun mailan, lotura hori badugu eta, baizik eta instituzional mailan, Nafarroa Euskal Herriarekin... Lotura honen alde gaude, lehenengoz, Nafarroa bere nortasun historikoagatik, bere kultura, bere hizkuntzagatik, jatorrizko herrialde euskaldun edo Euskal Herriaren kide delako. Guk esan dezakegu, PSOE-k epe laburreko lanez, guk hauteskundealdian zehar azaldu dugun thesiari herriak atxikitzea lor dezakeela, hots, beharrezkoa dela loturaren thesiari”. (Gabriel Urralburu. “Punto y Hora”, 1977.eko ekainean).

---

Nafarroa Espainia al zen XVI. mendearen hasieran? Luis Correa gaztelar historilariak, 1513.ean, “La Conquista de Navarra” liburuan, zera dio: “1513.eko udaberrian espainiarrak, beaumontarrekin batera, Baztan haranera abiatu ziren Amaiurko gaztelua memperatzera”. “Albako dukeak *Espainiara* itzuli nahi izan zuen, Nafarroa ja menperatuta bait zegoen”. “Nafarrek *espainiarrei* atseden hartzen ez zieten uzten”.

---

Martin de Azpilkueta, Barasoaingo nafar jakintsu ospetsuak, Toulousen 1520.ean egindako sermoian, Unibertsitateko ikasleen nazioak izendatzean; espainiarrak, euskaldunak, eta abar, aipatu zituen; bere burua euskaldunen artean kokatuz.

---

Azpilkuetako Martin berak, Alberquerque dukeari egindako Eskutitz Apologitikoan, hau xe aldarrikatzen zuen: "Aitortzen dut, eta pozten naiz nafarra eta euskotarra izateagatik". Eta hitz hauek jorratuz, H. de Oloriz Nafarroako kronistak, zera idatzi zuen 1918.ean: "Benetan egiazko aburua, nafarrok euskaldun bait gara leinuz, euskaldun jatorriz, euskaldun hizkuntzaz, izakeraz eta ohituraz".

---

Antonio de Estrada, jesuita gaztelarrak, 1539.ean, jesuiten sortzeari buruz honela idatzi zuen: "Guretako batzuk frantsesak, besteak espainiarrak, besteak saboiarrak eta besteak euskaldunak izanez". Euskaldunak, Loiolako Eneko eta Xabierreko Frantzisko ziren.

---

Jatorrizko euskarari, hots, euskal herrialde guztien hizkuntza zenari, Antso Jakitun erregeak "lingua navarrorum" deitu zion.

---

Hilarion Eslava, Burladan 1807.ean jaiotako nafar musikariak, zortziko musikaren iturburua azalduz, doinu honen sorteria "lau probinziz osatutako Herri batetan" ipintzen du.

---

1863.ean Luis Luziano Bonaparte printzeak egindako Hizkuntza Mapan, euskararen muga hegoaldetik, Tafalla ingurutik hurbil zegoen.

---

Berlingo Unibertsitateko eraikia izan zen W.F. von Humboldt alemaniar jakintsuak, 1801. urtean Euskal Herria bisitatu ondoren, zera idatzi zuen: "Euskaldun guztiek nazio bat osotzen dute". Eta euskaldunen artean nafarrak ere sartzen zuen.

---

Duela ehun urte baino gehiago, Ameriketara lan bila joan ziren nafar, arabar, bizkaitar eta gipuzkoarrek "Laurak Bat" izeneko elkarteak eraiki zituzten. Eta geroxeago, "Zazpiak Bat", iparraldekoak ere hara joaten hasi zirenean.

---

Mende honetako hasieran, Sangüesako karlisten biltokian egin ziren estatutuetan "lau euskal probintziak" aipatzen ziren.

---

"Gure gaztelu (Amaiur) gainean aurkitzen diren harri zahar horiek, euskal aberriaren azken martirien odolaz gorrituak, gaur gorrotoaren indarrez zatiturik, zertaturik eta apurturik; nafar zuzenbide eta nazioaren ezaugarriak dira; eta oraindik gure zainetan odolik badugu, bertara joan beharko genuke denak elkarturik, lehengo borroken oroitza berpiztera, eta gizonak baino bihozberago den hormazahar agurgarrien gaineko huntza malkoz ureztatzeraz". (Juan Iturralde y Suit. 1840-1909).

---

Azken Aita Santuek gotzain nafarrak Bizkaia eta Gipuzkoarako izendatu dituzte (Añoveros, Argia, . ..). Eta bizkaitar bat, Zirarda jauna, Nafarroarako. Zergatia nabaria da.

---

Jokalari euskotarrak soilik onartzen dituen Bilboko Athletic-ek, futbolari nafarrak alokatzen zituen, baita Franco-ren garaian ere, eta klub-aren zuzendariak abertzaleak ez zirelarik. Eta inor ez zen harritzen, noski.

---

Nahikoa izango litzateke Nafarroako izendegi telefonikoa goitik behera begiztatzea, Nafarroa beste zenbait euskal probintzi bano euskaldunagoa dela egiaztatzeko. Ikus ere nafar toponimia edozein mapatan.

---

“Asociación euskara de Navarra” izeneko elkarteak 1877.eko azaroan sortu zen, helburu hauek zituelarik: “Foruen babeskuntza, nafar eta beste euskaldunen arteko batasunaren aldeko borroka eta premiazko euskararen zabalkuntza.”

---

Espainiarrek Nafarroa bidegabeki konkistatu zuten. Horregatik, Fernandoren oinordekoak Espainiako erregetzan kezkatu ibili ziren Nafarroako arazoaz. Karlos enperadoreak ez zegoen lasai legekotasunari buruz, eta hilburuko agirian, semeari gaia sakonki aztertzea agindu zion. Eta Felipe II.ak berdin. Azkeneko agirian hau esaten zion semeari: “Agintzen diot nire seme Felipe printzeari, pertsona jakintsu eta kontzientziadun batzuen bitartez, arazo hori azter dezala”.

## 9.- HIZKUNTZA

Kultura gizatalde baten krapen, erakunde eta jokabideen multzoa da, hots, herri bat bereizten duen balioen sistema.

---

Euskal Herria euskara gabe, hegal gabeko usoa.

---

Zoritxarrez, gure inguruan maiz nabaritzen duguna zera da: euskara bihotzean baina erdara ezpainenetan. Bihotz euskaldun eta buru erdaldunen arteko gatazka gogorra.

---

Ihardunaren ihardunez orraztuko dugu gure euskara. Ez dago beste biderik

---

Herri batentzat bere kulturaren eta batez ere hizkuntzaren galera, bere nortasun bereziaren galteza izango litzateke, beraz, herriaren heriotza.

---

Suitzako Auzitegi Federalak, 1965.ean emandako epaitzan, aburu hau azaldu zuen: “Herrialde lingüistiko baten batasuna eta eremua arriskuan egon daitezke, beste mintzairazko jendearen barnealdaketa edo inmigratioagatik... Eta arrisku honi ezin izango zaio aurpegi eman, kanpotar horiek hizkuntza arloan bertakotzen ez badira”. Euskadin, kanpotar batzuk ez ezik, gure herriko seme batzuk ere, ez dira hizkuntza arloan bertakotzen.

---

Belgikako ikastetxeetan erabili behar den mintzaira, lurralde bakoitzeko jatorrizkoa da. Behin, ordea, Flandesen bizi ziren frantses hizkuntzako familia batzuek Strasburgeko epaitegira jo zuten beren aberriaren hizkuntz-legearen aurka. Baina hango Gizaeskubide Auzitegia, 1968.eko uztailaren 23an emandako epaitzean, Belgikako hizkuntz-legearen alde azaldu zen.

---

Hain “chauvinista” diren frantsesek, gure txapelari “béret basque” deitzen diote, eta ez “béret français”. Hemen, berriz, TVE-n entzunak ditugu honelako perlak: “Ia boina, esta espa-

ñolísima prenda”, eta “el españolísimo juego de la petota”. Zer pentsatuko ote dute, esate baterako, iparraldeko teleikusleek?

---

Jugoslaviako 1963.eko Konstituzioak hauxe dio: “Jugoslaviako herrien hizkuntzek eta idazkerek eskubide berdinak dituzte”.

---

Euskara euskaldunon ariaren poderioz salbatuko da.

---

Txekoslovakiako Konstituzioak, 16 art. lehenengo atalean hau dio: “Txekierak eta eslobierak legezko balio berdina dute legeak egitean eta beste egintza juridiko orokorretan”. Eta 2. atalean: “bi hizuntzak balio berberarekin erabiltzen dira Estatuako erakunde guztietako egintzetan”.

---

Finlandiako bizlanleen %7ak suedieraz hitz egiten du. Hala ere, bai finalndiera, baita suediera ere, hizkuntza ofizialak dira. Eta suedieraz mintzatzen den lekuetan: “Ezin da, udalaren baimenik gabe, Estatuak edota Udaletxeak mantendutako ikastetxeetan finlandiar hizkuntza irakatsi”.

---

“Oso egokia da beste nazio batetara abiatzen direnek ahaleginak egitea ondo jakiteko, ez bakarrik leku hartako hizkuntza, baizik eta herriaren sozial eta sikologiko izaerak”. (Vaticano II.a. Apaizei buruzko dokumentua, 10).

---

Gizatalde baten egintza guztien artean, hizkuntza da garrantzitsuena. Etnia batentzat hizkuntza ez da bakarrik elkar ulertzeko tresna, baizik eta taldearen ohituren artxiko eta bilduma. Hizkuntza da taldeak egin duen inguruko munduaren irudi bereziaren adierazpena.

---

Mintzaira ofizial bat bakarra izatea Estatu osorako, nahiz eta beste mintzairak ofizialak izan beren lurraldeen esparruan, Estatu barneko herriei ematen zaien tratu desberdinen adierazpena da.

---

Duela urte batzuk, Frantziako hormetan horrelako idazkiak irakur zitezkeen: “Debekatuta dago bretoieraz mintzatzea eta txistua lurrera botatzea”. Eta Frantziako Kataluñan: “Garbiak izan zaitezte, frantsesez hitz egin ezazue”. Bartzelonako Unibertsitateko bulego nagusi batean, 1950 urtean edo, nik neuk irakurri nuen iragarki txartel hau: Katalandar, hitz egin ezazu Inperioaren hizkuntzaz”.

Kultura garaiagoa edukitzeak herri bati baimena emango balio beste herriak menperatzeko, pertsona burutsu eta kulturdun baten besteak gailentzeko ahalmena onartu beharko genuke ere, eta besteei bere eritzia, pentsamoldeak eta aginduak impositatzeko.

---

Gaur egun, baliabide handiak erabiliz, egundoko saiok egiten direnean desagertzeko arriskutan dauden animaliak eta landareak aurrera ateratzeko, ez al ditugu ere eginahalak egingo

herri txikien hizkuntzak salbatzeko? Mintzaira hauek giza-pentsaeraren era bereziak dira, eta gizadiaren ogasun kulturalaren zati interesgarriak.

---

Sarritan, Estatuak herri txikien asimilapenean saiatzen dira, herri horien jendea gaineko kulturari murgilduz. Kultura eta hizkuntza galduz gero, kontzientzia naionalaren galera erraz suertatuko da.

---

Nazio askotako Estatuetan, lurralde batetik besterako jendearen mugimenduak etengabe gertatzen dira. Beste herrien biztanleek, batez ere herri nagusienek, bertako hizkuntza ikas dezaten ez badira neurriak hartzen, denbora pasa ahala, herrialde horretan beste gizatalde berri bat beste hizkuntzarekin eratuko da.

---

Suitzako Auzitegi Federalaren 1932.eko ekainaren 3 ko epaitzak, zera dio: “Gure lurraldeko hizkuntza mugak, ezarrita daudenez gero, ukiezinak dira. Talde bakoitzarentzat, bere hizkuntza erabiltzen den eta bere kultura jabetzen den lurraldearen osotasunaren ziurtasunean datza aberriaren zati desberdinen elkar onartzearen babesa. Horregatik, talde bakoitzari baieztatu behar zaio edozein sartzearen kontrato eskubidea”.

---

Suitzako kantoien eskubidea etorkinak asimilatzeko bertako ikastetxeetara joatera behartuz, Auzitegi Federalak, 1965.eko martxoaren 31an baieztatu zuen ere. Epaitza honek onura publikoaren lehentasuna (kasu honetan, kanto bakoitzean bere jatorrizko hizkuntzaren iraupena), familia bakoitzaren onuraren aurretik erabakitzen du. “Kantoei dagokie zaintzea beren lurraldeetan hizkuntzerregioen iraupen eta sorkidetasuna”.

---

Indoeuropearrak heldu baino askoz lehenago, anitz hizkuntza zegoen Europan. Denak deuseztatu ziren, euskara izan ezik.

---

Victor Hugo-k zioen: “Hemen datza inork eten ezin izan duen lotura ezkutu eta sakon bat... Euskara aberri bat da, ia ia erlijio bat dela esango nuke”.

---

Gaur egun, gure larre-hizkuntza kale-hizkuntza bilakatzen ari da

---

Historian zehar euskarak azaltzen duen bizi nahi egoskogorra, gertakari miragarria da.

---

Euskararen arloan, Jainkoak lagunengandik defenda nazala, ni etsaiengandik defendatuko naiz eta. Zenbat lagun sasi-abertzaleri bost axola zaio kinka larrian dagoen gure ama, gure euskara maitea!

---

Euskararik gabe Euskadik agian iraungo zuen, baina ez zen Euskal Herria izango. Euskaldunok geure euzpainetan euskara dugun bitartean, bagara Euskal Herri.

---

Hizkuntzak bereizten gaitu, hizkuntzak markatzen gaitu. Soziologoak bat datoz uste horretan.

---

Finlandiako zenbait lekutan, baserrietan bakarrik egiten zen finlandesez. Gaur, ia denak finlandesez mintzatzen dira.

---

Txekoslovakiako hirietan alemanez hitz egiten zen. Pragan, txekiera merkatu egunetan soilik entzuten zen, nekazariengan. Gaur, berriz, ez da Txekoslovakian alemanez mintzatzen.

---

Zertarako ikasi euskara? Ez al zaigu onuragarriagoa ingelesa edota frantsesa? Hona hemen nik maiz ematen dudan erantzuna: nik neure ama maite dut, ez onuragarria izateagatik, ezta polita izateagatik, baizik eta nire ama delako, eta kitto.

---

Eliezer Ben Yehuda-ren hitz famatuak: "Herri bat, hizkuntza bat. Juduok, hitz egin hebraieraz! Hebraiera gabe ez dago Judu Herririk!".

---

Mintzaira herri baten historia bizia da. Beraz, euskara Euskal Herriaren historia bizia dugu.

---

Espainia Ameriketaz jabetu zenean, hango kultura bikainak (azteka, maia, ketxua, guarani) zapalduak izan ziren. Hizkuntzak eta ohiturak baztertuak.

---

Frantziako Iraultzan, jakobindar buruzagi batzuek herrialde txikien hizkuntzak sineskeriarekin eta erreakzioarekin elkarganutzen zituzten. Eta hizkuntz horiek oldartuak izan ziren 1793.eko Biltzarrean. XIX. mendean, Engelsek ere hizkuntz txikiak deuseztatzea proposatu zuten.

---

Aita Arrupek, 1973.ean zera zioen: "Txit egokia izan zitzaidakeen (euskara jakitea), Aita Jenerala izanez, bakoitzarekin bere jatorrizko hizkuntzaz mintzatzea gustatzen zaidalako, eta tamalez, jesuita euskaldunei gaztelaniaz hitz egin behar diet..." "Elizaren irakatsiak behin eta berriro zein den etnia txikien eskubideen arazoetan eduki behar den jarrera zehaztu du".

---

Paulo Deunak, bere konbertsioa adieraztean, hauxe idazten du: "entzun nuen *hebraieraz* esaten zidan ahots bat: Saulo, Saulo, zergatik erasotzen nauzu". Paulo Deunak grekoz idazten zuen, hori bait zen orduan Ekialdeko mintzairarik jakintsu eta hedatuena. Baina Jaunak bere jatorrizko eleaz, arameoz alegia, hitz egin zion.

---

1801. urtean, W.F. von Humboldt-ek uste zuen ehun urtetako epean euskara zeharo galduko zela. 192 urte pasatu dira, eta gure euskara maitea oraindik bizirik dirau, eguzki-izotzek heldua eta zoritua.

---

Euskerak zer egokiera eman dezakeen kultura egiteko erakusten du Orixek bere idazlan osoan. Eta gaur egun ere, esate baterako, Bernardo Atxagak.

---

Euskara batua mordoiloa eta erdigaztelera dela aldarrikatu ondoren, pertsona berberak, euskara batua entzutean edota irakurtzean ez dutela ezer ulertzen, esaten didate. Nola aditu euskara batuaren ulertezintasun hau erdi gaztelera baldin bada? Zuzen zioen Aita Lafittek, batuaren etsai batzuei buruz: "Ideiak baino sentimendu gehiago dago zenbaiten ahotan".



## 10.- GOI-ARNAS

Bizitzak estrukturak behar ditu, hots, hezurdura edo eskeletoa. Ez dago bizitzarik, ez bizitza personala, ezta gizarte bizitza ere, hutsean, euskarririk gabe. Baina zenbait kasutan, hezurdura, estruktura, burokrazia, gehiegizkoa izan ohi da, eta falta dena Goi-Arnasa edo arima da. Itsasuntzia astunegia baldin bada, hondoratu egiten da.

---

Animaren gaztetasuna adinaren gaztetasuna baino hobeagoa da.

---

Erljioak, zeruak bezala, ez du zutaberik behar. Eta are gutxiago, boteretsuen zutaberik.

---

Batzuentzat erljioa otoitz eta zeremonia hunkigarrien bilduma baizik ez da, zerua erraz lortzeko bide laburra. Zerua, otoitz eta meza batzuen truke.

---

Maitasunean datza kristautasunaren funtsa. Hortxe dugu lehen agindua

---

Sinesmena galtzen duenean, gizonak ordezeko sasi-jainkoengan ipintzen du bere itxaropen osoa.

---

“303 urteko apirilaren 16an, Engrazi Doneari injustiziaren kateak erori zitzaizkion eta askatasun osora hegatu zen”. (Aizarnako Engrazi Donearen ermitan).

---

Kristauaren eginkizuna: Fededun izan, federik ezak jotako egunotan.

---

“Ez naiz hilgo, ez bait dut argiaren aurka pekatuak egin”. (Katoliko elizara bihurtu zen John Henry Newman jakintsuak).

---

“Ez zinateke ene bila ibiliko, aurkitu ez baninduzu” (Pascal)

---

Barrengo hutsa ez dezake kanpoko ezerk bate.

---

Lokatsean finkatzen badugu oinarria, bere gainean eraikitzen duguna, berehala erori eta hauts bihurtzen zaigu.

---

Garenaren arabera bizi gaitzen.

---

ITXAROPENA, hizki haundiz, eta itxaropenak, hizki txikiz. Azken itxaropen hauek maiz porrot egiten dute, ITXAROPEN haundiak, berriz, ez.

---

“Begira nola egoten den nekazaria, lurra dakarren uzta ederraren zain, goiz-euria eta berant-euria itxaroten dituela iraupenez. Izan ezazue, beraz, zuek ere iraupen; egon sendo, Jaunaren etorrera hurbil da eta”. (St. 5, 7-8).

---

Egiaren begirada iltzatu da nigan. Egiari aurrez-aurre begiratzeko ausardia behar da.

---

Etsipenak xaguak bezalakoak dira, argia pizten denean, une berean, desagertzen dira.

---

Injustizia, praktikoki, jainkogabetasun edo ateismoaren mota bat baizik ez da.

---

“Basahuntza iturrien irrika bezala, hala daukat, Jainko, gogoa irrika Zugana” (41. salmoa).

---

Idazle batzuek “Jainkoaren isiltasunaz” idatzi dute. Baina galde genezaieke ea nolako aha-  
leginak egin dituzten Jainkoaren ahotsa entzuteko.

---

“Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuen: itsuek ikusten dute, eta elbarriak  
badabilta; legenardunak garbi gelditzen dira, eta gorrek entzuten dute; hildakoak pizten dira,  
eta behartsuei berri ona hotsegiten zaie”. (Mat. 11, 4-5)

---

Gizona, ez baldin bada espiritua, ez da pertsona, talde zoologiko batean ale edo zanbaki  
bat baizik.

---

Nobel Saria 30 urte zituelarik eskuratu zuen Werner Heisenberg-ek, 1927an zera zioen:  
“Max Planck-entzat erlijioa eta naturaren zientzia elkargarriak direla uste dut, errealitatearen  
arlo edo aurpegi desberdinak adierazten dituztelako”. Izan ere, Planck eta Heisenberg fede-  
dunak ziren, Einstein bezala.

---

Niels Bohr-entzat: “Erlijoak gizadiaren bitzta elkartzen laguntzen du. Bere helbururik one-  
netariko bat izadiaren armonia gogoreraztea da”.

---

Heisenberg-ek zera idatzi zuen: “Matematikan unitate imaginaria den “-1” ren sustrai kuadr-  
ratuaz zenbatu eta kalkulatu dugu. Unitate hori adierazteko “i” hizkia erabiltzen dugu. Zen-  
baki hori ez da zenbaki naturala. Hala ere, matematikako adar garrantzitsu batzuk “i” unitate  
horretan finkatzen dira. Beraz,  $\sqrt{-1}$  k benetako izatea dauka. Estaten dugunean “ $\sqrt{-1}$  existi-  
tzen da”, matematikan garrantzi handiko erlazioak unitate horretaz ongi agerterazten direla  
adierazi nahi dugu. Harreman edo erlazio matematika horiek existitzen dira sinbolo horretaz  
aparte. Horrelako zerbait ere gertatzen da matematikan infinito edo mugagabearen ideiarekin.

Erlijoaren hizkuntzan, esaera hauek: “Jainkoa existitzen da”, eta abar; munduaren iza-  
kien arteko loturak eta harremanak ulerterazteko balio dute. Lotura horiek benetakoak dira,  
guk formula horiek erabili baino lehen ere”

---

“Zaharrak (Jainkoak) ez duela dadotan jolasten, sendoki uste dut”. (Einstein-ek, 1926an,  
Max Born-i)

---

“Gauza guzti hauen iturburua ezin diogu iratxeki izaki ahaldun baten adimen eta jakindu-  
riari baizik”. (Newton. Optika III, 38).

---

"Azken finean, Jainkorik gabe, gizakiaren aurka eratuko dugu (mundua). Humanismo hutsa gizakotrako humanismoa da". (De Lubac. "La crisis del humanismo ateo").

---

NASA-ren zuzendari eta espazial hegaldien antolatzailea den Von Braun-ek, astronautak lehenengo aldiz ilargira heldu zirenean, belaunikatu eta Jainkoari eskerrak eman zizkion.

---

Jainkoari erreguz eta beharrari mailuz; ez bait dago Jainkoa beste jainkorik.